

# noaua

Aitzaga ere epaituko dute  
herriko tabernen  
aurkako auzian

Bada zer hobetua,  
autobus zerbitzuan

Usurbilgo Gaztetxeak,  
"urtebete bete-betea"



**Fiare banka etikoa  
sustatzeko taldea osatu da herrian**

## Konpost Egunak

Atez Atekotik, Zero Zaborrerantz III. Jardunaldiak

*Urte gutxitan herritar kontzientziadun minoritarioen jokabide militante izatetik kasik modako fenomeno bihurtu da konpost egitea Gipuzkoako eta Nafarroako herri askotan. Milaka familia ari dira bai norbere lur-muturrean edo bai udalak lagatako lurrean auzolanean beren hondakin organikoak konpost bihurtzen.*

### Urriaren 24an, osteguna / Hernanin

19:00 Biteri kultur etxean, mahai-ingurua konpostaz. Hainbat adituek aztertuko dituzten gaiak:

- Autokonpostaren eta Auzo-konpostaren egoera Gipuzkoan 2013ko urrian.
- Autokonpostatzaileak lortzeko sustapen kanpaina desberdinak.
- Gune urbano trinkoetan auzokonpost-guneak non, nolakoa? Hautatzeko irizpideak.
- Nola lortzen da herri oso bat konpost egiten jartzea?
- Autokonpostatzen hasteko herritarrei eman beharreko trebakuntzaren edukia.
- Egituratzaila edo materia lehorraren aukeraketa

### Urriaren 27an, igandea / Usurbilen

10:00-14:00 Usurbilgo frontoian konpostatzearen erakusketa.

- Hondakin organikotik konposta eskuratzeko prozesuaren informazioa
- Munduko eta gertuko hainbat esperientzia
- Konpostagailu ezberdinen erakusketa
- Konpost-motak ezagutu
- Bakarka zein auzolanean konpostatzen hasi nahi dutenentzako izena emateko aukera
- Usurbilgo auzo-konpost gune batera bisita
- Herrian auzolanean egindako konpostaren banaketa, etxera eraman nahi dutenentzat

Erakusketarekin batera bestelako postuak ere izango dira: lore salmenta, arrautza ekologikoen prozesua eta barazki ekologikoen postuak...

Antolatzaileak:

Gipuzkoa Zero Zabor, Hernanin Zero Zabor eta Usurbil Zero Zabor

Laguntzailea:



ZERO ZABOR



**Zure sagardoa egiteko behar  
duzun guztia daukagu!**

**BERRIA!**  
EGIN EZAZU ETXEKO  
SAGAR ZUKUA, GUK  
PASTEURIZAGAILUA  
UTZIKO DIZUGU!



ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
**BIZIRIK**

  
**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba  
alkartasuna@alkartasuna.com  
Atallu industrialdea, 26  
943 36 11 14

## Albiste iruditan

# Herriko tabernen aurkako epaiketa

Ostegun honetan, urriaren 17an hastekoa da Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalean. Ezker Abertzaleko 36 kide eta 110 bat herriko taberna edo elkarte epaituko dituzte, 35/02 sumarioaren baitan. Tartean, sei urtez itxita egon ostean, 2012ko otsailean beriz zabaldu zuten Usurbilgo Aitzaga Elkarte. Azaroaren 26rako deitua dute deklaratzera.

Honen harira, hainbat salaketa eta elkartsun hitzordu deitu dira asteotarako, Libre izeneko ekimenaren baitan:

### Urriak 17, osteguna

- 19:30 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan, epaiketaren hasiera dela eta.

### Urriak 18, ostirala

- 21:30 Aitzagako XI. Mus Txapelketako lehen jardunaldia elkartearen. Izen ematea, 21:30-22:00 artean. Prezioa bikoteko, 25 euro.

### Urriak 29, asteartea

- 18:00 Mozio aurkezpena, osoko ohiko bilkuran.



Libre Gunea ipiniko da azaroaren 1ean, Aitzagak antolatu duen Artisautza Azokan.

### Azaroak 1, osteguna

- LIBRE gunea, Aitzaga Elkarteak antolatuko duen artisautza azokan. Antolaketa lanetan parte hartu edo ekarpenik

egin nahi duenak, astelehen arratsaldero 19:00etan bilera Aitzaga Elkartearen. Informazio: libre.epaiketarikeez.org, facebook.com/libre.usurbil, twitter.com/LibreUsurbil/libreusurbil@gmail.com

## Laburrean

### Zubietako Lanbide Eskolaren oharra

2012an Zubietako Lanbide Eskolan ikasketak amaitu zituztenak tituluak jasotzeko moduan daude. "Erdi eta goi mailako tituluak iritsi dira eta jasotzeko prest daude. Jasotzeko ordutegia: 9:00tatik 14:00tara".

### Miriam Mendoza ipuin kontalaria Sutegin

Ostegun honetan, ipuin kontaketa saioa Sute-gin. Datorren ostegunetan, urriak 17, Miriam Mendoza ipuin kontalaria arituko da, eta HH4ko ikasleei zuzenduriko saioa izango da. 18:00etan hasiko da.

### Kilometroetako zozketen zenbakiak

Notario aurrean, honako hauek dira Tolosako jaialdiaren harira eginko zozketetan sarituak izan diren zenbakiak: "Ahora!" Kotxea: 056753. Kari-berako bidaia: 014202. Tonbolako telebista: 3653.

# noaúa

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaúa.com /// www.noaúa.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak




Euskal Herrira!

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.  
**Publizitatea:** Bea Alda, [publizitatea@noaúa.com](mailto:publizitatea@noaúa.com).  
**Diseinu berria:** Erroitiz S. L.

**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaúa.com:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.  
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.  
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

## Pitzadurak egituran

**E**guzki izpiak leihotik etxe barru-  
ra sartzen direla ikusita, esku-  
ra nuen arropa jantzi, erosketak egiteko kolorezko marradun poltsa berrerebilgarria hartu eta hor noa kalera. Portaletik atera eta... hau hotza!!! Berriz etxera igo edo ahalik eta ondoen tapatu eta aurrera egin, hortxe eguna esnatzeko lehen dilema. Erabakia hartu dut; banoa erosketak egitera. Ni bai jende gutxi zebilela kalean, baina goiz samar izanik, normala izango zen. Fruta dena baten ondok pasatzen naiz eta itxita, harategia itxita, supermerkatua itxita, hurrengo harategia itxita... Orduan konturatu naiz, nola edo ahalik, pasta eta arrautza frijituekin bizi iraun beharko nuela asteburuan! Gaur larunbata, baina urriak 12 ditu, jai eguna! Jai eguna? Bai, jai eguna.

na. Etxera bueltatu, telebista piztu, eta albistegietan Espainiako armada bere baliabide eta harrotasun (edo keria) erakusten Madrilgo kaleetan. Gerra al dugu berriz?

Desfilearen buruzagi lana egiten ari denari begira nago. A ze panorama duen familian! Emazteak aukera izan balu, hanka egingo zuen aspal-di. Aita, ehiztari fina oihanean, orain antza ohean (izarrei begira bakarrik?), arreba eta koinatua ustezko esku luze-zen zerrenda beltzeko lehen postuetan, beste arrebak nahikoa bere burua-ekin, ama familia batu eta itxura duina eman nahi jendaurrean, zikinke-ria guztia alfonbra batekin estali nahi eta ezin. Etxekoak batu eta goberna-tu ezin, eta nazio bakar, batu eta aske hori lortzeko borrokan desfleko burua. Ondo babestua, emaztea, armada

eta gobernu alboan dituela, nola ez. Ez baitu besterik.

Haien aurrean jarri eta edonork ahoa ireki eta haiekin bat ez datoren zerbait esan dezala. Badaki zer duen. Familia honek gabonetan indarkeriaren aurkako mezuekin etxe guztietako egongela eta sukaldeetan muturra sartu nahi izaten duen moduan, armadarekin kalera ateratzen da urriaren 12an. Itxura guztien arabera, nazio sentimendu bat aldarrikatzen. Militarrekin, indarra erakutsi nahian, indarra erakusteko beharrez. Indarra dutela konbentziarazi nahian. Baina ba al dute indarrik? Nazio sentimendua barnean badaramate, zertarako militarrek?

Ez nolanhiko gastua gainera. Baina berdin zaie. Krisiagatik gaizki pasatzen ari direnengandik kez-

katuta egon arren, gero handik eta hemendik "limosna" izugarriak jasotzen ditu familia honek. Lanbide ezagunik ez, hortzak erakustea izan ohi dute ogibide hainbat ekitaldi publikotan, eta hori egiteko ere nahiko lan dute jada. Familia desegituratzen ari baitzaie, egitura pitzatzen ari da. Euren esanetara behar dituzte herritarrak. Baina orain, inoiz baino ozenkiago ari dira adierazten, batzuk eta besteak, ez dituztela nahi. Eta orduan dituzten baliabide eta pribilegioak zertarako, ez badute herritarren babesik? Gaur egun Espainia irudikatzen duen talde irudia (monarkia, militarrek eta gobernu) eskaintzen ari dira telebistan; batasunaren irudia eskaini nahi, baina egitura pitzaduraz josia duen estatu baten irudia.

Luken Arkarazo | **Aritz Gorriti** | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

### Hitz Ahoren ikastaroa

Guraso Elkarteak honako gai honi buruzko eskola antolatu du: "Gatazkak gure seme-alabekin: Nola aurre egin arduraren oinarrituriko heziketaren ikuspuntutik". Gai bera ari da lantzen irakasleak ikastetxean elkarbizitzaren proiektuaren bidez. "Egokia iruditzen zaigu eskola eta familiak bat egitea lan honetan, gure nerabeen onerako, nahiz eta estilo desberdinak erabili, batzuk irakasle bezala, eta besteak guraso modura". Izena emateko, posta elektronikoz: [hitzaho@udarregi.com](mailto:hitzaho@udarregi.com)

### Bi hilabete, egoera bideratzen saiatzeko

Tarte hau hartu dute Gipuzkoako Hondakinen Konsorzioko (GHK) zuzendaritzak eta UTE Gipuzkoa CGR-ko enpresariaren ordezkariak, "elkarren artean adostasun bideak aurkitzeko". Eta honen bestez, errauste plantako lanen eteteari akordio batekin amaitzeko. GHK-k aditzera eman duenez, akordio batera heldu ziren bi aldeak urriaren 3an eta akordioa, "Gipuzkoaren onerako lan egin nahi izatearen ondorioa da". Bestetik, GHKinfo.com itxuraz berri dute.

### 1952 jaiotako zirenen kinto bazkaria

Abenduaren 1ean ospatuko dute kinto bazkaria. Denbora asko dago aurretik, baina izena ematen hasi beharra dago, zenbat izango diren zehaztu ahal izateko. Hau da ekarri diguten oharra: "eguerdiko 14:00etan Atxega jauregian batu-ko gara, abenduaren 1ean. Ordaindu beharra 35 euro izango da eta izena emateko epea azaroak 22 ostirala izango da. Telefonoa: 943 361380 Kontxi. Neska-mutil, animatu egun eder bat ospatzeko, bi egun gelditzen zaizkigu-eta".

### 1973koen kinto bazkaria

NOAUA! Ira adi egoteko deialdia egi-na zuten, sorpresak egongo zirela. Eta orain zehaztasun gehiagorekin, 1973an jaiotako kinto bazkaria azaroaren 23an ospatuko dutela iragarri dute, 14:00etan Atxega jatetxean. 12:00ak aldera Bordatxon elkartuko dira, hamaitakoa dastatzeko. Eta gero bazkaria, eta "sorpresak... Animatu eta hasi izena ematen, nahiz eta denboraz lasai ibili. Idatzi azaroaren 15a baino lehen, [usurbil1973@hotmail.com](mailto:usurbil1973@hotmail.com) helbidera.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzeko aldean  
943 372 795

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

# Bada zer hobetua, autobus zerbitzuan



Jende asko batu zen Potxoenean egin zen bileran.

**G**eltoki aldaketak, autobus zerbitzu desberdinen arteko koordinazioa, zerbitzu bakoitzari buruzko informazioa modu argiagoan jartzea... Herritarrek hauek eta beste hainbat eskaera egin zituzten pasa den astean, Usurbilen dugun autobus zerbitzua hobetzeko Potxoenean antolatu zen saioan. Uste baino jendetsuagoa suertatu zen hitzordua. Foru Aldundia, Aztiker eta Usurbilgo Udalarekin batera, herriz herri halako saioak antolatzen ari da. Inguaruotan ditugun bus zerbitzuak hobetu nahi dituzte, eta horretarako, erabiltzaileen edota oro har, herritarren ekarpenak, proposamenak biltzen ari dira.

## Jasotako ekarpenak, aurreproiektura

Gipuzkoako 56 udalerrietan egitekoak dira herritarren parte hartzean oinarrituriko saio hauek. 2014an hainbat kontratu berri behar ditu Aldundiak bus zerbitzu desberdine-

tako enpresekin. Eta unea baliatu dute Diputaziotik, gai honetan herrialde mailan parte hartze prozesu bat abiatu eta zerbitzuok hobetzeko. Aipatu moduan, pasa den asterako zuten antolatua Usurbilgo saioa. Guztiz parte hartzailea izan zen. Potxoenera bertaratu ziren herritarrek taldeetan banatu, eta autobus zerbitzua hobetu ahal izateko hainbat puntu aztertu zituzten; mugikortasun ohiturak, ibilbideak, geltokiak, ordutegiak, prezioak, autobusak nola koak diren... Gaiotan zer hobetu daitekeen, herritarren ahotik proposamenak jasotzen aritu ziren saioa gidatu zuten Aztikerreko ordezkariak.

## Hiru lineak, aztergai

Bereziki, eskualde barruko eta eskualdeak Donostiarekin duen komunikazioan zer hobeturik ba ote den aztertu nahi izan zen. Usurbili dagokionez, hiru autobus linea hartu zituzten aztergai gisa; Lurraldebus, hau da, Zumaia-Donostia lotzen dituen

zerbitzua; Usurbil ospitaleekin lotzen duena; eta Usurbil-Hernani artekoa. Hain zuzen, linea hauek baliatzen dituzte hainbat usurbildarrek. Bereziki, Donostiara, Lasartera, edota erietxera joateko.

## Prozesuaren lehen fasean

Potxoeneako saioa, herritarren proposamenak eta iritzia biltzeko baino ez zen. Gipuzkoa mailako parte hartze prozesu honen hasiera baino ez da hau, lehen fasean baikaude. Han eta hemen, hileotan Gipuzkoako 56 udalerrietan antzeko bilerak egingo dira herritarrekin. Jasotako ekarpenekin aurreproiektua idatziko dute, eta aurreproiektu horrekin Aztikerrekoak beste bilera erronda bat egingo dute aurrerago. Usurbilera datorren 2014ko martxoa, apirila aldera itzuliko dira. Aurreproiektua osatzeko, herritarrek izan ditzaketek ekarpenak biltzera. Gai honi buruzko informazio gehiago: <http://www.garraioahobetzen.net/eu/>

## Inkesta betetzeko aukera

Usurbilgo autobus zerbitzuan zer hobetuko zenukete? Gai honen inguruko inkesta orriak banatu ditu Udalak etxeetan. Orain zuen esku, galdetegiok betetzea. Urria amaitu arteko epea duzue. Behin erantzunda, inkesta orria jasotzeko postontziak jarri ditu Udalak, eta bertara eraman ditzakezue. Guneotara:

- KAXKOAN: udaletxeko sarreran eta anbulatorioan.
- AGINAGAN: Arrate egoitzan.
- SANTUENEAN: auzo elkarteak.
- ZUBIETAN: Herri Batzarreko postontzian.

Inkesta betetzeko inprimakia etxean jaso ez duenak, aipatu guneotan eskura dezake. Internet bidez ere bete liteke galdetegia, helbide honetan sartuta:

[www.garraioahobetzen.net/eu/](http://www.garraioahobetzen.net/eu/)





SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Paradisu txikia

**E**rdibitu nahi eta ezin pasa genituen askok auzoko jaiak aurten. Asteburu ero eta zoro horretatik eskubaloi zelaian erdi erorita dagoen pankarta gelditzen zaigu bakarrik. Hori eta oroitzapen asko, zenbat argazki, eta bazuentzat toki guztietan egon nahi eta ezina. Ez al zen gehiegi izan asteburu baterako?

Ia konturatu gabe jo dugu amaitutzat uda eta udazkenean murgildu gara betebeteen. Aurten eguraldia lagun, uda luzatzen ari dela dirudi. Denok perretxiko, uso eta hego haizearen zain. Sagarrak bildu eta sagardoa egiten hasteko prest gauden hilabete honetan etortzen zaizkit burura, udako oroitzapenak oraindik. Agian eguzkiak zigortu gintuen egun horiek lagunduta, aurtengo udan Txokoaldeko "presa" aldera egin ditut zenbait joan etorri. Gazteago edo txikiago ginenean sarritan joaten ginen, itzala, lasaitasuna eta bainatzeko ederra den uraren bila. Oso aldatuta topatu nuen noski, baina txikitako oroitzapenak buruan bueltaka nituela, irudimena askatu eta beste irudi bat azaldu zitzaidan begien aurrean. Zergatik ez hesiak kendu, bidea libre utzi? Arriskutsua bada, agian segurtasun neurri batzuk hartuta, aisialdirako ederra izango genuen ez? Mahai batzuk, bainua hartzeko egokitu... ez dakit. Neure begiek irudi oso polita ikusi zuten egun hartan. Ez dakit gaur egun ze funtzio betetzen duen edota noren ardura den bere mantentzea. Neure irudimena ez du hainbesterako ematen. Jakinda irudimena librea dela, neureari ez diot trabarik jarriko; datorren udan ere, Txokoaldeko txoko berezi honetan paradisu txiki bat sortzeko.



KALEZAR

INMA BALDA

## Urria urri

**F**undamentuzko udaberria ez genuela izan eta uda berantiarra! Beste konturik ez dugu izan azkenaldi honetan. Orain egutegiari begira jarririk, udazkenean sartuta eta urriko bigarren hamabostaldia gainean dugula ohartzeke. Esku artetik ihes egiten digute urte sasoiak! Horren kontra ere borroka egin behar, alajaina!!!!

Ez dira auzotar gutxi kale kantoitik atera eta mendirako bidea harturik pauso bizian bueltatxo bat egitera irteten direnak. Zenbait ordutan Donostiako hiribidea ere urri uzten du Arratzain bitarteko bideak, hainbeste jende ibiltzen baita gora eta behera. Jendearen emana, ugaritasuna... horrek poz handia ematen du. Ez, ordea, aurten naturak ematen digunak. Bai, halaxe da, sasoiari jarraituz, ondoak, gaztainak, intxaurrak, urrak, ezkurak... barra-barra bildu beharko genituzke. Baina, oraingo honetan urria urri datorkigu eta bakanegi ari gara naturak eman nahi diguna biltzen. Natura ere krisian ote dago? Hori behar genuen! Lehengoaz gain are zailago izango dugu sasoiako produktuak kontsumitzea, urrutikoak garestiak omen dira eta bertakoak ere urrearen pareko jarri zaizkigu eta! Halere ez da hau kontu berria. Gure zaharrek aurretik ikusia zuten antzekoa eta horrela utzi ziguten esana: "Urrila urri, ilunabarretan igarri". Hala beharko izan, San Simon eta San Juda ate joka ditugu eta ordua atzeratzeko eskatuko baitigute.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Iparraldeko artistekin

**B**agenuen kezka, gure Iparraldeko lagun hauek nola adieraziko zuten jendaurrean hiru egunetan aginagarrekin egin duten lana. Baina gustura gelditu ziren, bai beraiek eta baita bertan egon ginen herritarrok ere. Ez da erraza izan, hiru egunetan hartutako argazki bilduma, doinu eta hitzak ordu bete iraun zuen emanaldi horretan txertatzea. Hala ere, saio ederra izan zen, gozatzeko modukoa. Ludoteka bete xamarra ikustea ere pozgarria izan zen. Hau guztia ikusgai izan genuen pasa den urriaren 5eko arratsen. Badira aipatu beharko genituen hainbat pasadizo, baina oilasko biltzaileekin egin zuten ibilaldia, benetan aipatzekoa izan zela iruditzen zait. Aurtengoa berezia izan baita, xirula eta ttuntuna ibili baitira parez pare, trikitixarekin. Eta ez dut uste bata bestearen azpitik ibili denik. Harriduraz hartu gintuzten etxe bat baino gehiagotan, baina pozik gelditu ziren egingandako aldaketarekin. Elkarrekin ibili ginen gazte eta ez hain gazteak, giro ezin hobean. Eta hori bai, suziri botatzaile "beterano" batekin, Manuel Murgillekin hain zuzen ere. Errepi-katuko ote dugu?



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Komertzioa, bizi-bizi

**O**porren ostean bueltan gara berriz ere gogotsu. Herrian zaharrek berri ditugu. Ostantzean, badira ala ere herrian zenbait kontu eta komeri, kontu-kontari aritzeko. Kale Nagusian badugu zer esanik, aspaldi honetan bizi-bizirik nabaritzen da herriko komertzioaren hazkundera. Tabernarien aldetik, Tipi-Tapa ospatuz, igandetan sekulako giro ederra izaten delarik. Bestalde, "Pauma" arropa denda berria dugu, betiko lekuan dago baina zeharo itxura aldaturik, heldu zein gaztetxoentzat modako arropa berezia eskaintzen duelarik. Orain arte "Mariaje" arropa denda izan dugu herrian, punta puntako markak eta bestelakoen aukera zabala eskaintzen. Pixka bat harantzago begiratu jarririk, "Garaiko" Fruta denda berria dugu, fruta aukera zabala dutelarik. Aldamenean "Errazkin bizikletak" dugu, orain arte herrian izan ez dugun aukera eskaintzen; bizikleta berriak eta bigarren eskuko bizikletak eskaintzen. Horrez gain, konponketak ere egiten dituelarik. Aukerak izatea ederra izaten da beti, eta inoiz baino gehiago, herriko komertzioa bizirik izateak poza ematea du benetan. Eutsi goiari, denok dakigu eta ez direla garai errazak!!! Ondo izan eta hurrengora arte.

# Aginagarekin liluratuta

**H**alaxe geratu dira Jean-Christian Galtxetaburu, Mixel Etxekopar, Pierre Vissler eta Joanes Etxeberria. Laukotea aurten-go San Praixkuetan izan da. Urriaren 3tik 6ra, Aginaga eta aginagarrak erretratatzin eta elkarbizitzen: txokoak, herritarrak, jaietako, edo euskarari loturiko irudi eta hitzak biltzen. Eginiko lanaren aurrerapen modukoa izango dena ere jendarean erakutsi zuten. Aginagako lan-keta, beste hainbat herri txikiengan egitekoak dira, eta hortik "Züek heben" egitasmoaren baitan, etorkizunean halako "atlas geopoetiko" bat osatu nahi dute, euren musika txertatuz.

## Zer inpresio hartu zenuten Aginagara iristean?

### Jean-Christian Galtxetaburu:

Hemen bada mundu bat eta mundu batzuk ere. Ez da mundu bakar bat. Aginagan bada ura, eta itsasoari buruz, hor da mundu bat ere. Hemen, zentroan gaude, hau beste mundu bat da. Eta beste mundu batzuk ere badira, lehengo denboretan, orain jendearen gogoetan direnak. Eta bihar-ko mundu bat ere izango delakoan nago. Beraz, mundu batzuk dira neutratz hemen.

## Zein zen hemen egin nahi zenuen lana?

**Mixel Etxekopar:** Sentitzen dut tximeleta bezalakoak garela. Txoriak gara, eta tximeleta hori Euskal Herrian zehar ibili da anitz, eta ibili gara anitz laurak. Eta asmoa hori da, hiru egunez herri batean edo auzo batean pausatzea, eta hor bizitzea. Usaindu, begiratu, behatu, entzun, eta biltzen, gurea egin. Hirugarren egunean auzotarrak gonbidatu eta gurea eskaini, beti gu gauden bezala. Ez dugu dakiguna ematen, baina garela saiatzen, horretan ez da gezurrik. Eta lagunak, argazkitan eta soinuaz biltzen dute nonbait, tximeleta horrek bildu duen lilien muinetik zer biltzen den? Badira bazterrak, eta badira jendeak. Eta jendearen ahotan euskara bada. Euskararen gibelatik, euskararen ñabardurak. Bi orduko bidaia egin ostean, Oria ibaiaren ginen ala batean Oriorako bidean.



**Aginagako zein beste lurralde batzuetako esperientziakin, atlas geopoetiko bat osatu nahi dute etorkizunean.**

Pagolan eta Arnegin izan gara. Aginagaren ostean, ideia da nonbait tximeleta hori pausatzea, Euskal Herriko hainbat herrietan.

## Beste leku batzuetara jotzeko asmoa duzue?

**M.E.:** Proiektua deitzen da "Züek Heben". Beti entzuten dugu, a zuek hemen? Eta azpitu-tulua da, horretan datza gure desafioak, Euskal Herriko atlas bat egitea, baina geopoetiko. Aginagan egindako lana, atlas horretako orrialde bat da. Pagolan beste orrialde bat idatzi genuen, Arnegin beste bat. Eta orrialde horrek zer izanen du? Argazki, soinu, euskararen ñabardura eta gure kantuek ere bai.

## Zer da gehien gustatu zaizuen Aginagaz eta aginagarrez?

**J.C.G.:** Momentu berezi batean etorri gara, jaiak baitira. Orain arte egon garen herrietan ez ziren jaiak. Beraz, eguneroko bizia zen. Hemen, jaiak ziren eta ez dakit hitza zuzena nola nukeen. Gauzak sakonki esanak eta eginak dira hemen. Agerian da, nola jendearen arteko harremanak baduen garrantzia handia eta guk badugu ongi etorri izugarria ere hemen. Jendearen artean bada halako komunitate sentimendu azkarra.

## Herri sentimendua?

**J.C.G.:** Hori da. Elkar ezagutzen du jendeak. Jadantik ezagutzen dute eta momentuetan ere. Badira bakoitzarentzako uneak ere. Irekia da ere. Librean da pixka bat. Tokia txundi-

garria da, nola baduzu, naturaren bar-netasun izugarria hemen, hurbil. Eta gero, hiriko kontzentrazio eta halako dardara bat. Eta dena badago. Bi urrats egin eta joaten zara beste mundu batzuetara. Horregatik nioen, mundu batzuk badirela Aginagan. Baina funtzionatzen dute elkarrekin eta hori oso aberatsa iruditzen zait. Eta ni ere aberasten naute.

## Lanak liburu baten forma hartuko du

### Hemen eginiko lanarekin gero zer?

**M. E.** Badugu "Hebentik" izeneko kultur elkarte. Hastapeneko proiektua zen eta da. Ekoizpen finala, liburu bat izango da, argazki andana batekin. CD batean grabatu Aginagako argazki eta audioak. Sarearekin hobeto pentsatu behar dugu nola. Baina objektua maite dugu, zeren guk eskainiko dugu. Euskal Herriko atlas izango duzu.

### Atlasa osatzeko beste leku dezentetara joateko asmoa duzue?

**M. E.** Asmoa bospasei egitea urtean. Aurten hiru egin ditugu, 20-30 egin nahi ditugu. Zuberootatik Arabara egin bagenezake, eta beti euskara mintzatzen den tokian. Asmo bat ere badugu. ez dakit gauzatuko dugun, Kalifornian ere ibiltzea, han ere Euskal Herri bat bizi da. Edo Kuban. Zortzigarren herrialde horrek ere badu xarma, zeren errealitatea badu.

## Konpostatzearen inguruko jardunaldiak

"Atez Ateketik, Zero Zaborrerantz" izeneko jardunaldiak antolatu ditu Gipuzkoa Zero Zaborreko kide diren Hernani eta Usurbilgo taldeek, urriaren 24 eta 27rako. Bi saiotan banaturiko ekimen honen baitan, konpostatzea izango dute hizpide nagusi. Urriaren 24an mahai inguru bat antolatu dute, 19:00etan Hernaniko Biteri kultur etxean. Antolatzaileen esanetan, saioa herritar orori zuzendua dago, baina modu berezi batean, ingurumen alorreko teknikari edota udal ordezkari. Bertan, gai honi loturiko datuak edota esperientziak ahotan hartuko dituzte, baita auzo-konpost-guneak non eta nolakoak behar duten, nola lortu herri oso bat konposta egiten jartzea,...

Jardunaldien bigarren hitzordua Usurbilen antolatu dute, urriaren 27an. Igande goiz osoan zehar, konpostatzearen inguruko erakusketak bat bisitatu ahalko da frontoian. Gertuko eta munduko konpostatze esperientzien berri ematen duten informazio panelak jarriko dituzte. Herritarrek lorturiko konpostak ere oparitu dute. Eta produktu ekologikodun zenbait posturerekin batera, informazio gune bat ere egongo da, konpostatzen hasi nahi duenak izena eman dezaten, edota ari diren zalantzak eta kezak argitzeko. Udaletxe ondoan kokatuko den auzo-konpostatze gune berriko lan amaiera zuzenean ikusi, edota jada funtzionamenduan dauden antzeko gune-etara bisita gidatuak antolatuko dituzte.

### Urriak 24, osteguna

19:00 Konpostatzeari buruzko aditu mahai-ingurua Hernaniko Biteri kultur etxean.

### Urriak 27, igandea

10:00-14:00 Konpostatzearen inguruko erakusketak Usurbilgo frontoian.

Antolatzailea: Gipuzkoa Zero Zabor, Hernani eta Usurbilgo taldeak.

# Fiare, beste banka eredu

**A**urrezkiak era arduratsuan kudeatzea, horixe du zeregine-tako bat banka etikoak. Bestea, jendeak banka honetan gordetako dirua proiektu sozialetara bideratzea. Gai honetaz informatzen eta kontzientziatzen aritzeko bada talde bat Usurbilen. Ostiral honetarako proiektzioa antolatu dute Sutegin. Bilguneari buruzko zehaztasun gehiago, lerrootan.

**Usurbilgo FIARE osatzen duzue. Zer esan nahi dute siglek?**

**Usurbilgo FIARE:** FIAREK, Aurrezki Arduratsurako Inbertsio Fondoa esan nahi du. Banka etikako proiektu bat da. Finantza munduak ere etika behar duela eta dirua kudeatzerakoan baloreak ere kontuan hartu behar direla pentsatzen dugu. Eta diruak pertsonen mesederako tresna bat izan behar duela, eta ez berez helburu bat.

**Aurretik herrian egin izan diren jardunaldietan du jatorria talde honek?**

Usurbilen FIAREri buruz antolatu ditugu gutxienez bi hitzaldi; bat duela bizpahiru urte, Usurbilgo Elkartasun Taldeak antolatu zuen. FIAREko zuzendaria hitzaldi bat ematera etorri zen. Parrokian beste hitzaldi bat antolatu genuen. Auzolan Topaketetan ere hitzaldi edo tailer modukoa izan zen. Horrez gain, badira herrian FIAREko bazkideak izan eta jada sentsibilizatuak daudenak. Baita diruaren kontuarekin kezka duten herritarrak ere. Azkenean, hortik sortu da taldea.

**Bazkideak aipatu dituzu. Zer suposatzen du FIAREko bazkide izateak?**



*“Diruak pertsonen mesederako tresna bat izan behar du, eta ez berez helburu bat”*

Kooperatiba izaera du Fiarek, eta aurrezkiak era arduratsuan kudeatzea du helburu.

Azkenean banketxe bat sortu nahi dugu. Banketxe honen forma juridikoa kooperatibarena da. Kooperatibak bazkideez osaturik daude. Bazkide izateko harpidetza bat egin behar da, eta hori da bazkide izatea. Zer gertatzen da? Bere garaian, banka etikoaren proiektua Euskadin zegoen landua. Denborarekin konturatu gara Euskadi mailan bakarrik ezin dela eraiki banka etiko bat. Orduan, Europa mailako beste esperientzia batzuk aprobeztatu ditugu, Italiako kasu honetan. Hango kooperatibaren ereduan gauzatuta, proiektu hau aurrera ateratzen ari da. Europa mailakoa den Italiako banka etikoko proiektuaren zati gara.

**Nola egin bazkidetza?**

300 euroekin. Banka etikan parte hartzeko hiru forma desberdin daude; bat bazkide izanda, eta bazkide izateko gutxienez 300 euro jarrita; bi-

garrena, banka etikoaren bezero izatea, eta horretarako, zure dirua banka etikoaren kontu korronte batean edo depositu batean jartzea; eta hirugarrenik, FIAREren proiektua zabaltea. Eta horretarako ez duzu izan behar, ez bazkide ezta bezero ere. Baizik eta talde kidea izatea, proiektu honetan sinistea.

**Taldera gerturatzeko zer egin daiteke?**

Helbide elektronikoko bat jarriko dugu. Azaroaren 1ean, Artisautea Azokan informazio mahai bat jarriko dugu eta ekitaldiren bat ikusten badugu herrian, ahal dugunean informatzen saiatuko gara. Bere posta emanda informatuko genuke. Beste herrietan ere taldeak osatu dira. Helburua ez da banka tradizional bat bezala sukurtsal bat jartzea, baizik eta talde eragilea sortzea. Bulego bezala estatu mailan bakarra dago, Bilbon. Donostian astean bitan irekitzen duten informazio bulego bat bada.

## Banka etikoaren ezaugarriak

- Aurrezkiak era arduratsuan kudeatzen dira: jarritako dirua, herritarren onerako diren proiektu sozialak finantzatzeko.
- Espekulaziorik ez.
- Kooperatiba izaera.
- Bazkide bat, bozka bat; bazkide bakoitzak hitza eta bozka eskubidea erabakietan.
- FIAREren bazkideen artean daude: Usurbilgo Udala, sindikatuetak, ikastolak, Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE), erakunde publikoak...
- Kreditu eskubidea bermatua.
- Gardentasuna: FIAREren proiektu guztiak, emandako mailegu guztiak ikus daitezke bere web orrian.
- Jarritako depositua nahi denean ateratzeko askatasuna.
- Proiektuen bideragarritasun azterketa bikoitza egiten dute: ekonomikoa eta baita etikoa ere.



# bat posible da

## Banka etikoa jendartean zabaltzea zuen erronka. Zer diote herritarrek?

Jende askok buruan duena banketxe normal bat da, bere gestioak egiteko leku bat. Gehiago da kontzientzi lan bat, dirua non gordetzen den garrantzitsua dela jabetzeko. Hona ez da etorriko bere diruari etekina atera nahi dion pertsona. Bai ordea momentuan behar ez dituen aurrezki txikidun jendea. Garrantzitsua da azpimarratzea, proiektu sozialak finantzatzeko denez, bazkideak ez dira bakarrik norbanakoak. Elkarrekin, talde sozialak ere izan daitezke. Eta hor ere zabaltzen ari da proiektua. Administrazio kontseiluan ere bada euskaldun bat. Italiako kooperatiban FIARE sartu da, maiatzean zuzendaritza batzordea berri zuten. Kargu horietan sartu zen FIAREko Bilboko lagun bat.

## Gaur egun bizi dugun panoramarekin, nola egin dezake bere bidea banka etikoak egungo sistematan?

Galdera oso zaila. Alde batetik errealistak izan behar gara. Italian badira 40.000 bazkide, baina 40.000 dira, finantzaren %0,01 suposa dezakete. Sinisten dugu proiektu honetan, alternatiba bat sortu behar dela finantza munduan eta horrek gauzak egiteko moduan errebisioa ekarriko duela, horren esperantza dugu. Jendartean ikuspegi kritiko hau kaleratu nahi dugu. Gero zer lortuko dugun, oso zaila da baloratzea. Are gehiago, kontuan hartu behar da banka, finantzak tresna bat direla azken finean. Eta horrek izan behar duela lotura beste talde sozialekin, eta hor sortzen dela sare bat. Proiektu honek ez luke izango zentzurik, sare sozial hori kontuan ez baldin badu, eta horretarako



**“Hona ez da etorriko bere diruari etekina atera nahi dion pertsona”**

**“Ezin da neurtu banka honen indarra, beste banketxeekin neurtzen den moduan”.**

dago proiektu hau. Orduan ezin da neurtu banka honen indarra, beste banketxeekin neurtzen den moduan.

## Banka etikoa bestelako babes soziala biltzen ari da ordea?

Asko handitu da banka etikoa, neurri batean krisiak eraginda. Krisiak duen alde on bat da, nolabait kultura finantzarioa handitzen ari dela. Jendeak geroz eta gehiago daki, zer dagoen banku baten atzean. Ustedut nahikoa zabaldua dagoela zein izaten ari den banku tradizionalaren papera krisian. Jendea nolabait, begiak irekitzen ari da. Hasi dira pentsatzen, zer egiten ari diren gure diruarekin. Eta hor dago koska. Ostiralerako antolatutako proiektuaren izenburua ere hortik dator, ia zer egiten duten gure diruarekin. Banka etikoak horrekiko alternatiba planteatzen du. Gure diruarekin zer egiten den, etika bat betetzen duten helburuak ditu. Eta gainera jendeak erabakita, partaideek erabakita. Bazkide izateak halako gauzak dakartzatza. Banka etikoak ez du espekulatzen. Gogora dezagun, krisiaren oinarrian, banku tradi-

zionalak izan eta baztertu ez duten filosofia espekulatuzailea egon dela. Zentzu horretan, banka etikoa segurua da, ez baita joango pikutara espekulazioagatik.

## Garai egokia izan liteke honako hau, banka etikoa indartzeko, jendea ere alternatiba bila baitabil?

Hala gertatzen ari da. Baina krisia hain sakona denez, jende askok likidez falta du patriketan. Baina aukera duenak eta benetan ikusten badu, alternatiba polita bada beste bide bat egiteko. Proiektu honek bi ardatz ditu; batetik ardatz soziala, sentsibilizazioarena, diruarekin zer egin modu arduratsu batean. Talde hau ardatz sozial honetan zentratzen da. Eta ardatz finantzarioa; eta bigarren ardatz honetan oraindik arazo teknikoak daude, guztiz martxan jartzeko. Horretan ere ari gara, baina pazientzia eskatzen dugu. Dena den, Internet bidez bada aukera adibidez, kontu korronte bat kudeatzeko. 4 euro badi-tuzu ez izan betiko bankan, 4 euro horiek inbertituko dituzte armak ekoizti, ingurumena

hondatu, edo jendea zapaltzen duten enpresetan. Helburu bakar batekin; zure 4 euro horiekin beraiek beste 4 lortzea. Horren alternatiba, zure dirua banka etikoan gordetzea da. Bermatua duzu zure dirua, ez dela halako kontuetara bideratuko eta nahi duzunean zure dirua berreskuratuta ahalko duzula.

## Gure diruarekin egiten dutenari buruzko proiektzioa

Finantza mundua ikuspegi kritiko batetik aztertu eta alternatibak proposatzen dituen proiektzioa antolatutako Usurbilgo FIARE taldeak ostiral honetarako, urriaren 18rako, 22:00etan Sutegin. Gero solaserako tartea izango da;

**Izenburua:** “Contu dinero” (“Zure diruarekin”).

**Eguna:** urriak 18, ostirala.

**Ordua:** 22:00.

**Tokia:** Sutegiko auditorioa.

**Antolatzailea:** Usurbilgo FIARE taldea.

**Informazioa:** [www.fiare.org](http://www.fiare.org)  
[gipuzkoausurbil@proyectofiare.com](mailto:gipuzkoausurbil@proyectofiare.com)

# Euskara ahoan, etxetik bertatik hasita

Ikastetxea hizkuntzaren erabileran garrantzia handikoa bada, zer esanik ez etxeko bertako hizkuntzaren erabilera. Ikastetxeak bakarrik ezin du bermatu hizkuntzaren erabilera, ezin zaio ardura osoa hezitzaileari utzi. Ezinbestekoa da haur edo gaztetxoaren inguru hurbila. Bide horretan sakondu nahi duenak eskualdeko Udal euskara zerbitzuetan argibide eta aholku ugari jasoko ditu.

**H**urbileko inguru hori, ezin bestela, gurasoak, zaintzailea, familia, eta abar dira. Eskola osagarri bat da, garrantzia handikoa, baina eskolak ezin du familia ordezkatu.

Gizarte bizitzan erdara belarrietara iristen da toki askotatik; beraz, haurra zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gehiago sozializatuko da, eta, ondorioz, orduan eta kontaktu handiagoa izango du erdararekin. Miraririk ezin eskatu eskolari, eta kalean hizkuntzarekiko sortzen diren desoreka horiek etxetik bertatik konpondu daitezke. Merezi du ahalegina egiteak. Etxean bertatik hasi behar da euskara ahoan erabiltzen. Nondik hasi bada? Familia asko izango dira Buruntzaldean ama hizkuntza euskara dutenak, eta beste hainbeste edo gehiago haurra euskaraz hezi nahi eta zailtasunak dituztenak. Zailtasun horiek izan daitezke, besteak beste, euska-



Hizkuntzarekiko eta erabilerarekiko jakinmina duenak eskualdeko udal euskara zerbitzuetara edota buruntzaldea.org webgunera jo dezake.

## EUSKARA AHOAN

**“Merezi du ahalegina egiteak. Etxetik bertatik hasi behar da euskara ahoan erabiltzen”**

raren ezagutza erabatekoa ez izatea edota gertuko inguru osoa erdalduna izatea. Buruntzaldeko Udal euskara zerbi-

tzak alor horretan lan handia egiten ari dira azken hamarkadan, zehazki, familien hizkuntza transmisioan.

## Gida-liburuak gurasoentzat

Haur txikiak dituzten gurasoentzat udal horietan lan polita egiten ari dira. Lan horren emaitza, gainera, denen eskurara dago Interneten.

Denbora gutxi da buruntzal-

dea.org webgunea berrituta aurkeztu dutela. Bada, atari nagusian ezker aldean dagoen “Zuretzat” estekan klik eginez gero “Gurasoak” izeneko azpiataleko menua lagungarria da. Bertan sartuz gero, haurra eta familia euskararen mundura erakartzeko material ugari dago. Besteak beste:

- “Etxean zer ikusi, hura ikasi. Zeuk duzu giltza” gurasoentzako liburuxka.
- “Euskara ere eman” liburuxka.
- “Gure haurraren garapena” liburuxka.
- “Etxeak du giltza” eskuorria.
- “Umeentzako hitz goxoen zerrenda” gida.

Aldizkari horien guztien PDF bertsioak dira, norberaren ordenagailura jaitsi eta gordetzeko edota pantailan bertan kontsulta egiteko. Informazio asko landu da ikuspegi hezitzaile, psikologiko eta pedagogikotik. Internet sareak, gainera, abantaila hori ematen du: eguneko 24 orduetan hortxe bertan eskuragarri dagoela.

## Informazio osagarria, buruntzaldea.org web orrialdean

### Lehen urteak, funtsezkoak

“Gure haurraren garapena” liburuxkan argiro azaltzen denez, haurraren lehen urteak funtsezkoak dira bere hizkuntzaren garapenean. Garrantzitsua da familiak haurrari laguntzea, haurraren hizkuntza egokia eta osatua izan dadin, “hizkuntza erabiliaren erabiliaz, berez osatzen da giza taldeetan. Hizketan hasi eta sei bat urte betetzen dituen arteko garaiari hizkuntzaren adina deitzen diote adituek. Umeak hitzak ikasi eta horiekin jolasean aritzeko irrikitan egoten dira”.

**Hamabi hilabete:** “Hizkun-

tzaz ohartzen hasiko da, ulertu egingo du, hitz egiten hasiko da. Hizkuntza batean garatzen ari da, eta emozioak ere hizkuntza horretan garatuko ditu.”

**Hogeita lau hilabete:** “Dagoeneko hizkuntza du bere komunikazio bidea. Lehenengo hizkuntza finkatu egingo da. Beste hizkuntza batzuk ikastea izango duen gaitasunik handiena hamabi urte bete artean izango du”.

**Hiru urte:** “Hizkuntza da bere inguru identifikatzeko eta harremanetarako bitartekoa. Helduak eta helduen hizkuntza imitatzen ditu”.

**Lau urte:** “Hizkuntza garapen betean dago, eta gurasoek haurrekin ez ezik, helduen artean ere hizkuntza horretan egiten badute, are eta aberatsagoa izango da hizkuntza hori”.

**Bost urte:** “Beste haur batzuekiko eta helduekiko harremana garatzen du. Euskara finkatuko badu, beharrezkoa da inguru hori euskalduna izatea, gaztelera nagusi den inguru batzuetara sarbidea izaten hasiko da eta”.

Urteak aurrera joan ahala haurrari aisialdia osatzeko jarduerak ez zaizkio faltako. Webgunean bertan “Seme-alaben aisialdia” atalean udalerr

bakoitzean hamasei urtetik beharakoei euskaraz aisiako edo denbora libreko zer eskaintza dagoen jakiteko informazio osoa eskaintzen da.

Familia eta eskola, haurrak eta aisialdia, hizkuntza eta erabilera etxetik bertatik garatzen hasi behar dira. Hizkuntza ohiturak etxean bertan hasten direlako. Kanpainaren esaldi nagusiak dioen bezala, haurrek “zer entzun, hura esan”. Zorionez, hizkuntzarekiko eta erabilerarekiko jakinmina duena ez da galduta ibiliko. Nora jo badaki, eskualdeko udal euskara zerbitzuetara edota buruntzaldea.org orrira.

# ZER ENTZUN, HURA ESAN



Hizkuntza-ohiturak etxean hasten dira

# 150 euroko lehen erosketa baleak, jabea du

**I**xidro Bengoetxea da, Tipi-Tapako denboraldi berri honetako lehen sari-tua. Hurbilago Elkarteko establezimenduetan xahutze-ko 150 euroko erosketa balea tokatu zitzaion 2.737 zerbakidun txartela zuen herritarri, urriaren 6ko perretxikodun pintxo janaren edizio amaieran Txiribogan egin zen zozketan.

Argazkian ageri da, Hurbilago Elkarteko eta Txiribogako kideekin. Urriaren 3an, Baita datorren 150 euroko erosketa balearen sari banatzea ere. Tipi-Tapako zozketak hileru ospatuko dira eta egitasmo honekin bat egin duten Txapeldun, Artzabal,



**Ixidro Bengoetxeak irabazi du urriko erosketa balea. Azaroaren 3an egingo da Tipi-Tapa berri bat.**

Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan.

## Perretxiko erakusketa

Usurbilgo Txapeldunek eta Hernaniko Zuñigak perretxiko erakusketa antolatu dute igande honetarako, Muna Lurrako plazan. 11:00etatik aurrera, pe-

retxiko, mineral zein fosil erakusketa eta pintxoaren dastatzea. Euria egingo balu, Punta-paxeko arkupeetan egingo litzateke erakusketa.

Bestetik, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak Txapeldunen dituzue salgai. Oraindik geratzen dira.

## Langabezia, goia jotzeko bidean berriz

**G**oranzko bideari eusten dio langabezia-tasak Usurbilen. Abuztuan ere lanik gabe zeudenen herritarren kopurua 353tik 365era gehitu zela aipatzen genuen. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kaleratu dituen iraileko datuak ez dira hobek. Usurbilen 371 langabetu zenbatu ditu aipatu erakundeak, joan den hilean. Krisialdian murgildu ginenetik udalerrri honetan inoiz erregistratu den kopururik altuenera gerturatzeko ari gara berriz, pasa den udaberriko 382 langabetuetara hain zuzen.

Gorakada orokorra da, ia adin tarte guztietan eta emakumezko zein gizonezkoen artean. Baina langabetuaren profila ez da aldatzen. Emakume

aurpegia du, eta 25-44 urte artekoa da. Zerbitzuetan beste behin baita, lanik gabeko usurbildar gehien, 371tik 234. Erregistraturiko lan kontratuak, 321 izan ziren irailean. Gehienak, 298, aldi baterakoak eta zerbitzuetan, 297.

Usurbilen bezala, Buruntzaldean eta Gipuzkoa mailan ere langabezia-tasak gorako bidean jarraitzen du. Eskualdean udalerrri guztietan igo da langabetu kopurua.

Abuztuan baino ia 70 langabetu gehiago zenbatu ziren irailean, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen. Eta Gipuzkoan, 49.000 langabeturen muga gainditu du langabezia tasak irailean. 1.000 langabetu gehiago daude herrialde mailan.

## USURBILGO DATUAK

**Guztira: 371**

Sexuaren/Adinaren arabera:

Gizonezkoak: 180.

< 25: 13

25-44: 99.

> = 45: 68.

Emakumezkoak: 191.

< 25: 12.

25-44: 91.

> = 45: 88.

## BURUNTZALDEKO DATUAK

Andoain: 1.124.

Astigarraga: 325.

Hernani: 1.461.

Lasarte-Oria: 1.438.

Urnieta: 392.

Usurbil: 371.

Guztira: 5.111.

## GIPUZKOAKO DATUAK

Guztira: 49.155.



## Gripearen aurkako txertaketak, Santuenean, Aginagan eta Zubietan

Irailaren 23az geroztik martxan da gripearen aurkako txertaketa kanpaina anbulatorioan. Baina Santuenea, Aginaga eta Zubietako bizilagunak adi, gripearen aurkako txertoa jasotzeko aukera izango baitute, guneetatik Kaxkora gerturatu beharrik izan gabe. Hori bai, aurrez izena eman beharko da. Apuntatu, gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera egongo baita egun eta leku hauetan;

### Urriak 23, asteazkena

**15:00-17:00** Santuenean, auzo elkartean.

**17:00-19:00** Zubietan, Kaxkapen.

### Urriak 30, asteazkena

**15:00-17:00** Aginagako Arrate Zahar Egoitzan, tailerrak egiten dituzten lekuan.

Informazio gehiago eta izen ematea; anbulatorioan, edo bertara deituta; 943 36 20 13.

## Odol ematea, azaroaren 4an

Datorren saioa azaroaren 4rako antolatu dute, 18:00-20:30 artean anbulatorioan. Deialdia, bi hilerro moduan, Usurbilgo Odol Emaitzen Elkarteak eginga du.

## Ate Irekien Eguna, DYaren egoitza berrian

Hori da DYak igande honetarako antolatu duen ekitaldia: ate irekien eguna, Muna Lurraren duen egoitza berrian. 11:00etatik 18:30era.



# Usurbilgo Gaztetxeak urtebete bete-betea

## Gazte Asanblada

### USURBIL

2013-10-14

**A**buztuaren amaieran urtea bete zen sindikatu zaharra okupatu zela. Lehenengo urteko udan, trikipoteo alai bat herritik zehar egin ondoren, Ugartondo industrialdeko kooperatibari ateak zabaldu eta berriki martxan jarri genuen. Okupatu aurreko hilabeteetan gazte multzo batek ikusitako, eta herriko eragileekin elkarbanatutako iriziaz jaso ondoren, gune auto-gestionatuaren beharra amets izatetik egiazkoa izatera pasa zen. Ez ziren hutsalak izan sartu aurreko gabonetan egindako akanpada edo Santixabeletako manifa. Ezta uda iritsi aurreko asteetan herrian girotu zen ilusioa. Gaztetxea ireki orduko bildutako jendetzak, berehala jarri zuten estalpea disdiratsu, horrela, eguneroko martxa segituan hartu zen eta mugimenduak ez zuten etenik izan lehenengo asteetan.

Urtea egin arren hainbat ekimen egin izan dira gaurdaino bertan. Alor desberdinak landu dira eta jende mota ezberdina hurbildu izan da (heldu, gazte, ume, guraso...) Urteurreneko ospakizunetan ere, gusto eta kolore guztientzako aukera egon da. Mural pintaketarekin hasi zen, guztion eskuek koloreztatu zuten horma



Iazko abuztuan hasi zen dena.

gaztetxeko alaitasuna margetuz. Andatzako gainak ere gurbela eder bat pasatzeko aukera eman zigun sasimendizale koadrila bati. Kartazale amorratuek, musean asetzeko parada izan zuten sari ikaragarririk gabeko txapelketa ez lehiakorrean. Euskal eguna talo zapore, trikiti eta bertso musikatuen sinfonian igarozen. Bukatzeko, urteurren festa haundia, poteo, kantu bazkari (ardo txarrak sortutako koplakaxkarren bat ere bai tartean!) joku eta hutsik egin ezin duen bertsio gauarekin gozatu ahal izan genituen.

Usurbilgo gaztetxean urtean zehar jasotako uzta aipa beharreakoa. Dantza ezberdinen taile-

rrak: dancehall, salsa, mandinge... Erraldioen konpartsa. Fracking edo AHTri buruzko hitzaldiak. Haurrentzako zirko, tailer, txokolatada.... Zerbeza eta hiri-baratza ikastaroak. Acroyoga, masaje eta risoterapia tailerrak. Antzerkizale eguna eta antzerkia ia hileroko. Ekozinemaldia. Ekotopaketak. Astero otar barazkiak biltzera etortzen diren Usurbiltzeneko lagunak. ANARI edo SEN bezalako musikarien kontzertuak. Hilabeteroko afari beganoak. Eta askoz gehiago.

Egun, gaztetxeak eraikinaren jabearekin adostasun irmorik ez du lortu. Okupatutakoan jarritako salaketa ez du kendu, nahiz eta hitzezko baimen moduko bat

dugun eraikinaren erabilerarako. Ugartondoko etxebizitzak berehala egiten hasiko zirela esan ziguten, baina proiektua diru arazoak direla eta geldirik dago. Gaztetxe alboko lantegiak lanean jarraitzen dute normaltasun osoz. Bestalde, udaletxearen jarrerarekin ez gaude baterados. Okupatzerakoan laguntza jaso genuen arren, jabearen salaketa dugulako herriaren azpiegiturak, hau da, mahaiaik, aulkiak... ezin dizkigutela utzi diote.

Azkenik, herriko gazte zein ez hain gazteei gonbita luzatzen diegu gaztetxera hurbiltzeko, uniforme erantzi eta koloretan janzteko burubihotzak!!

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

# TELP, euskaraz bizitzen laguntzeko tailerra

**T**ELP ("Taller d'espai lingüístic personal") tailerra antolatuta du Nafartarrak Elkarteak urriaren 25 eta 26rako. Euskara ahalik eta gehien erabiltzeko tresnak irakatsiko ditubertan, Gemma Sanginesek, Valentziako Psikologia Unibertsitateko irakasleak. Jatorriz euskalduna, Usurbila dator astebete barru, gure ama hizkuntzarekiko ardura dutenei eguneroko bizimoduan euskaraz bizi ahal izateko baliabideak irakastera. Izen ematea zabalik dago urriaren 25era arte.

## Valentzian du tailer honek jatorria. Nolatan?

**Gemma Sangines.** 2003an sortu genuen proiektu pilotu bat Ferran Suayk eta nik Valentziako Unibertsitatean. Konturatu ginen, katalanez hitz egiten zutenak, nahiz eta kontzientziadunak izan hizkuntzarekin, askotan erdarara jotzen zutela. Hor zerbait gertatzen zela jabetu ginen; alde batetik, jendeak badu kontzientzia eta ez dio uko egin nahi katalanari, baina gero bestalde, erdaraz egiten du. Batzuk hori normaltzat jotzen dute baina beste batzuk, oso txarto sentitzen dira. Gero Euskal Herriko jendearekin harremanetan jarri eta Emun bidez, hemen lanean hasi ginen baita.

## Psikologiari loturiko tailerra dugu?

Ferran Suay eta ni neu psikologoak gara. Orduan gure esperientziatik, lanbidetik saiatu ginen ekarpen hori egiten. Soziolinguistikatik bazegoen gai hau nolabait ikasia, ikertua, baina guk psikologo moduan zerbait esan genezakeen gai honi buruz, maila pertsonal batean. Hitzunaren jokaerak, portaerak egiten du bidea, edo



Urriaren 25ean eta 26an ikastaroa eskainiko du Gemma Sanginesek.

## GEMMA SANGINES

*"Tailerraren helburua da gure eremu linguistikoa ezagutu eta zabaltzea"*

nabarmentzen du gizarte batean zer egiten den edo nola jokatzeko dugun elkarrekin, hizkuntza aldetik.

## Baliabideak eman nahi dituzue tailerlean?

Euskaraz aritzeko tresna psikologikoak. Herrialde Katalanetan berdin katalana mantentzeko. Galizian ere aurkezpena egin dugu. Hitzun gutxi tuak zenbait baliabide psikologiko erabil ditzake bere hizkuntza mantentzeko.

## Zuen tailerretan parte hartu dutenek zer eboluzio izaten dute gero?

Bada jendea tailer honetan ikasitakoa bizitzako beste eremuetan erabiltzen duena, ez bakarrik hizkuntzarekin, baizik eta besteekin. Batzuetan ez dakigu ezetz esaten, edo gauzak ez dakizkigu ondo esaten. Orduan tresnok erabil daitezke, bizitzako beste eremuetan.

## Animatu herritarrak tailerretara. Zer esan?

Zure hizkuntzarekiko ardura nahi baduzu izena eman eta etorri. Ardura hartzeak ere laguntzen du aldatzen. Libreago izan nahi dutela sentitzen badute baita. Oinarri psikologikoak ikasiko ditugu, zergatik gertatzen zaigun gertatzen zaiguna, zergatik jokatzeko dugun horrela, eta gero modulu txikiak zer sentitzen dugun ikasteko, nola hasi aldatetako, nola esan besteoi aldatuko dugula gure jokaera ondo sentitzen, nola defenda gaitzezke en kritikaren aurrean.

## Euskararekin duzun harremana non hasten da?

Bilbon jaioa naiz. Euskaltegira joan nintzen 20 urte arte. Barne-tegi batean parte hartu nuen baita. Baina gero 20 urterekin Espainiara bizitzera joan nintzen.

Neure eremua dena zen erdaldua, neure familia baita. Valentzian bizitzen, alabak izan ditut. Euskal Herrian lan honekin hasi nintzenean konturatu nintzen, beharrezkoa zela niretzat euskara eta horretan hasi nintzen. Falta zait oraindik baina orain familia osoa saiatzen gara euskara mantentzen, eta Euskal Herriara joaten garenean beti euskaraz egiten. Maite dugu hizkuntza eta.

## "Euskararen errelatoa" eta TELP saioak, astebete barru

Euskararen inguruko hitzaldi eta tailer bana antolatu du Nafartarrak Elkarteak, datorren asterako. Joxe Manuel Odriozola euskaltzale pasaitarrak, "euskararen errelatoa" egingo du urriaren 24an eskainiko duen hitzaldi-solasaldian. Urriaren 25 eta 26an, TELP ("Taller d'espai lingüístic personal") delakoa antolatuta dute Sutegin. Tailer hau, Valentzian sortu zuten Ferran Suay eta Gemma Sangines Psikologia Unibertsitateko irakasleek. Sangines bera dator Usurbila, TELP tailerra bideratzera. Saioak, eguneroko bizimoduan, euskara ahalik eta gehien ahotan hartzen ikasteko tresnak, baliabideak eskainiko ditu. Euskara ahalik eta gehien erabili nahi duen euskaltzaleari dago zuzendua. Sarrera-hitzaldia eskainiko du Sanginesek hilaren 25ean eta tailerra bera, egun osoz gero biharamunean.

Tailerrean izena emateko lehen-tasuna dute usurbildarrek. Apuntatzeko epea ostiralera arte, urriaren 25era arte: Potxoenean edo aihert@gmail.com helbidean. Partaidearen izen abizenak, emaila eta telefono zenbakia adierazi behar-koko dira. Prezioa, 25 euro. Kutxabankeko ordainagiria ere aurkeztu beharko da. Ordainketak, Kutxabankeko kontu korrante zenbaki honetan egin beharko dira: 2095 5069 02 1063804198. Urriaren 25eko sarrera-hitzaldian parte hartzen duenari, tailerreko dirua itzuliko diote antolatzaileek.

## Urriak 24, osteguna

19:00 Hitzaldi-solasaldia Potxoenean, Joxe Manuel Odriozolarekin.

## Urriak 25, ostirala

19:00 TELP ("Taller d'espai lingüístic personal") tailerrari loturiko sarrera-hitzaldia Sutegin.

## Urriak 26, larunbata

9:00-13:00 / 15:00-19:00 TELP tailerra Potxoenean.

# Bi etapaz osatutako mendi irteera egin dute Andatzakoek



Erlo mendian ageri dira.

Usurbil-Xoxote-Deba ibilbidea osatu dute Andatza taldeko lagun batzuk. Argazkian, Erloko gailurrean ageri dira. 1.036 metroko garaiera du Erlok. Izarraitz mendigunean nabarmentzen den tontorra da, Xoxotere-

kin batera. Erloren gainaldean, harri, larre eta pagadi artean, paisaia polita osatzen dute hainbat tontor menditsuek. 1.000 metrotik gora heltzen den mendia da, eta bidean, Azketako iturria eta elurzuloa ikus daitezke.

## Futbol partidak

**Urriak 19, larunbata, Haranen**

10:00 Eskola kirola.

11:30 Infantilak.

**Urriak 20 igandea, Haranen**

9:30-12:15 Alebin federatuak.

11:30 Areto futbola (Oiardo Kiroldegian).

12:30 Neskak.

16:00 Jubenilak.

Tokia: Harane.

## Eskubalo partidak

**Urriak 19 larunbata, Kiroldegian**

9:30 Alebin neskak: Udarregi 6A-Udarregi 6B

9:30 Alebin neskak: Udarregi 5C-Urnieta 5B

10:30 Alebin neskak: Urumea-Udarregi 5A

11:30 Infantil neskak: Udarregi C-Ereintza C

12:30 Infantil neskak: Udarregi A-Ordizia

17:00 Kadete neskak: Usurbil K.E.-Elgoibar

18:30 Jubenil neskak: Usurbil K.E.-Elgoibar

**Urriak 20 igandea, Kiroldegian**

10:00 Senior neskak: Usurbil K.E.-Pulpo K.E.

## Emakumeentzako paleta ikastaroan izena emateko epea zabalik da oraindik

Frontoian izango da, urritik ekainera. 18 urte-tik gorako emakumeei zuzendua dago. Saiopak, astelehen arratsaldeko 19:30etatik 21:00etara izango dira. Asteazkenetan goiz eta arratsaldez: 9:00-11:00 artean eta 19:30-21:00 artean.

Izena ematea, 50 euro, Oiardo Kiroldegian. Informazio gehiago: 943 372 498 edo [kirola@usurbil.net](mailto:kirola@usurbil.net). Pagazpe PKE antolatua du ikastaroa.

## Kirol ikastaroak Aginagan

**3. Adina mantentze gimnastika:**

astelehen eta asteazkenetan, 10:00-10:50.

**Pilates ikastaroa:**

astelehen eta asteazkenetan, 9:00-9:50.

**Zumba ikastaroa:**

astelehen eta asteazkenetan, 19:00-19:50.

**Tonifikazioa+gap+luzaketak:**

astelehen eta ostegunetan, 17:00etan.

Izen-ematea: 943 372 498.

## Gipuzkoako Txapelketa

**URRIAK 18 OSTIRALA**

**USURBIL, 19:00h**

Eskuz banaka infantilak 1. urtea

USURBIL 1-GAZTELEKU 5

(Imanol Galarraga) (Andoain)

Eskuz banaka infantilak 1. urtea

USURBIL 2-GAZTELEKU 3

(Jon Zumeta) (Andoain)

Eskuz binaka nagusiak 3. maila

USURBIL 2-HERNANI 2

(Gorka Mendizabal-Mikel Landa)

Eskuz binaka nagusiak 3. maila

USURBIL 1-HERNANI 3

(Jon Zendoia-Julen Gesalaga)

**URRIAK 18 OSTIRALA**

**AGINAGAN, 21:00h**

Eskuz binaka nagusi ohore-maila

USURBIL-ZAZPI ITURRI

(Xabier Santxo-Julen Urruzola)

Paleta goma gizon. 2. maila

USURBIL 2-LAGUNAK 2

(Josu Arruti-Jon Olaizola)

Paleta goma gizon. nagusi 2. maila

USURBIL 1-ATXURBIDE

(Xabier Errasti-Aritz Urdanpilleta)

## Buruntzazpi taldeko txirrindulariak, Llanesen



Llanesen ospatuko den ziklokros txapelketan parte hartu dute

Buruntzazpiko txirrindulariek. Jubeniletan, Xuban Errazkin

bigarren postuan sailkatu da eta kadeteetan, Iñigo Altuna

bosgarren. Aipatu moduan, Buruntzazpiko lasterkariak biak.

**ETXEBIZITZA****Salgai**

San Inazio 1,5º pisua salgai. Sukaldea, sala, komuna, 2 gela (lehen 3) eta trasteroa. Bizitzen jartzeko moduan badago ere berrikuntza behar du. Oso argitsua bista ederrekin. Igogailu berria du. Usurbil erdian. Aukera ona. Prezio paregabean 150.000euro. 626110923

Baxua salgai Errekatxikin (61 m2) + pisu azpiko trastelekua (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, berogailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpian. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela,

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com) Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Inazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta. 172.000e

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

Etxebizitza eguzkitsua alokairuan

Etxe-Aldian. Bi gela, bainugela, sukalde handia eta egongela tximenearekin. 620565731.

Kaxkoan pisu bat alokatzen da altzarietan, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroarekin. 618 860 270

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastoa. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berri-tua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzen pertsona baten bila nabil. 661568471

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 [nerezabala1@gmail.com](mailto:nerezabala1@gmail.com)

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

**MOTORRA****salmenta,****garajeak**

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratuko. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzaila eta beti garajea.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko moduko 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeko garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, hurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: [oli\\_ireth@hotmail.com](mailto:oli_ireth@hotmail.com)

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaille moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitxo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nitzuke goizein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomata. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketean eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria pres-tatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenerieria ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-

**Zorionak Eki!**

Urriaren 24an 11 urte betetzen dituzu. Muxu goxo ta pottolo bat bidaltzen dizugu ama, aita eta Nahiaren partez.

Ohar, zorion-agur... berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)



duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldetan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaindu, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsaldez edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

### Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera.

Harremanetarako: 635742503

Mapfre aseguruetearen bulegorako Administrazio-Komertziala behar da. Ezinbestekoa da herrikoa izatea. Bidali kurrikulum-a ullaitei@mapfre.com

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko

da. 943 300518 (M<sup>a</sup> Angeles)

### BESTELAKOAK

Mountain Bike bizikleta bat salgai. Orbea Alma H60 29ER markakoa. Gizonezkoana. Berriberri dago. Prezioa: 500€. Tel. 666 373 150.

Aurtengo eta hemengobabarunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony markakoa. Egoera onean eta prezio bikaina, 80 euro. 653 014518

Pedaligabekobizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatan. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Kolore more eta gris duden nesken bizikleta berria (Coluer) lapurtu ziguten abuztuaren 31n arratsaldez, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

Aginagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortaxadora bat salgai, 100 euro. Asadore elektriko bat, 100 euro. 943361235

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzten ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetek, esekigailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haurjolasko... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldez, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea .....	943 376 650
Atez ateko bulegoa .....	900 776 776	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Udalzaingoa .....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	Eusko Tren .....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea .....	697 919 516	LurraldeBus .....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Anbulategia .....	943 362 013
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Oa botika .....	943 376 076
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	Iturralde botika .....	943 363 395
Haur Eskola .....	943 374 061	DYA .....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Emergentziak .....	112
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea .....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia .....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	Banco Popular Español .....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	BBVA .....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza .....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia .....	943 361 239	Telefonica .....	1004
NOAUA! Kultur Elkarte .....	943 360 321	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak urriak 17-urriak 27

**Osteguna 17** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Ostirala 18** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

**Larunbata 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

**Igandea 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

**Astelehena 21** ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

**Astearte 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

**Asteazkena 23** RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

**Osteguna 24** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 25** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Larunbata 26** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Igandea 27** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda urria

## 18 ostirala

- **Amatxo erakusketa Sutegin.**
- **"Con tu dinero" dokumentalaren proiektzioa** 22:00etan Sutegin.
- **35/02 epaiketa: mus txapelketa** 22:00etan Aitzagan.

## 19 larunbata

- **Hip Hop dantza ikastaroa** 16:00-18:00. Tokia: Oiardo Kirodegia. Antolatzailea: Gaztelekua.

## 20 igandea

- **DYAren ate irekien jardunaldia.** Egunean zehar frontoian: DYAren ate irekien jardunaldian baliabide erakustaldia, umeentzako tailerrak, boluntariatza informazioa... 11:00-18:30.

## "Ama!!txo" erakusketa Sutegin



Txo! Kolektiboak hainbat erakusketa egin ditu. Irudi hau Zumaian eginiko batena da (Urola-Kostako Hitza).

Ama, gai honetan oinarrituta artista talde baten lan sorta ezagutzeko aukera egongo da Sutegin, urriaren 18tik azaroaren 17ra. Denetarikoz diziplinetako hamalau egileren artelanak bilduko ditu kultur etxeko aretoak. Artisten artean, usurbildar batenak; Pelexenak. Eta berarekin batera beste hamahiru lagunok pintura, eskultura, argazkia... denetarikoz obrak erakusgai jarriko dituzte, beti ere, "ama" ardatz hartuta; Peio Goello, Olatz Goiburua, Carlos Ausserladscheider, Aitor Ruiz de Egiño, Javier Soto, Iker Valle, Keixeta, Jon Zabaleta, Ricardo Pascual, Alain Sistiaga, Gorka Salmeron, Xabier

Celestino eta Gonzalo Etxeberria.

"Ama!!txo" erakusketa hilabetez egongo da zabalik, eta ostiral honetan inauguratuko dute, 19:00etatik aurrera. Bisita orduak:

- Osteguna eta ostirala: 18:00-20:00.
- Larunbata: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.
- Igandea eta jaiegunak: 12:00-14:00.

### TXO! Kolektiboa

Pelexek antolatu du erakusketa, Usurbilgo Udala-ren babesarekin. 1989an Legazpin sortu zuten TXO! kolektiboko kidea da usurbildarra.

### Datozenak

#### Igandean, ate irekien jardunaldia DYAren egoitza berrian

DYA Gipuzkoak antolatu du ekimena, urriaren 20rako. Goizeko 11:00etan hasita, rokdromoan, haurrentzako tailerrak, tonbola, rcp tailerrak, boluntarioentzako karpa, errekurtsioen erakusketa, erreskateko simulazioak, kaleko antzerkia... iragarri dituzte, arratsaldeko 18:30ak arte. Simulazioarekin emango zaio amaiera.



Irailaren 27an egin zen DYAren egoitza berriaren inaugurazioa.

#### Hip Hop ikasteko aukera Gaztelekuan

Gaztelekuan ikastaroa antolatu du, larunbat honetarako, urriaren 19rako, Oiardo Kirolegian. Bi orduko iraupena izango du saioak; arratsaldeko 16:00etan hasi eta 18:00etan amaituko da. Nekane Larrañagak zuzenduko du.

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# EUSKAL JAIA '13

URRIAK 19  
LASARTE-ORIA

- 9:00 TXANGOIA BENEDIKARA  
11:30 KANTU JIRA, KALEJIRA, DANTZA...  
14:00 BAZKARIA (Paella, Bazkariko txartelak Jalgin eta Ttakunen salgai).  
BERTSOAK, ESKETXAK, DANTZA, KANTUAK...  
17:00 FAMILIA JOLASAK, PELOTA PARTIDUA, "OKERRA" HARRIA JASOTZEA  
18:30 ERROMERIA TRIKIHOTS-EN ESKUTIK  
19:30 PINTXO-POTEA, TRIKITILARIAK



# ANDOAINGO GUDUA

*Mustuaurrekoa*



*Andoain*  
2013, urriak 19  
larunbata



17:30 - ZUMEA PLAZA

Karlistak

GOIKOPLAZA - 17:30

Liberalak



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L.

teilatua eta fatxadak

943 37 38 79  
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue  
Igeltseritza S.L.

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

 Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra  
943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



**ANORGA TXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



 **Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE  ITURGINTZA

Gasa, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo  
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3. esk

**JOSEBA  
ARANGUREN  
ITURGINTZA**

943 83 00 72  
659 88 39 12

 Bainu eta sukalde  
erreformak, gasa,  
berokuntza

Josetxo Ikatzeta

687 951 225



**ESKAIOLA  
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL  
699426042



**Antonio  
URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Astesuan Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Balsamendi Arregi, Imanol  
AROSZTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

**izAgirre**

Elektrizitatea

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 08 81 11  
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37  
Kale Zahar Auzoa

**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL